

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen %16,8 berritzaileak izan ziren 2002-2004 aldian

2004. urtean teknologia-berrikuntzako jardueretarako 2.010 milioi euroko gastu osoa erabili zen, hau da, aurreko urtean baino %9,5 gehiago

EUSTATEN datuen arabera, 2002-2004 aldian Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen %16,8 berritzaileak izan ziren, merkatuan produktu (ondasun edo zerbitzu) berria edo nabarmen hobetua sartu zutelako (%5,4) edo establezimenduan prozesu berri bat edo nabarmen hobetua sartu zutelako (%14,9). Ehuneko hori %31,9raino heltzen da 10 langile edo gehiago dituzten enpresak bakarrik kontuan hartuta.

1. taula: Enpresa berritzaileak aldiaren arabera. (%)

	Guztira		10 langile edo gehiago	
	2002-2004	2001-2003	2002-2004	2001-2003
Euskal AE	16,8	16,5	31,9	32,1
Lurralde historikoa				
Araba	13,6	12,8	31,9	29,7
Bizkaia	17,5	16,0	30,1	30,9
Gipuzkoa	17,0	18,7	34,6	35,1


Iturria: Eustat

Jarduera-sektorearen arabera industria da nagusi establezimendu berritzaileen %22,3arekin; eta, zehatzago, sektore hauek: papera, edizioa eta arte grafikoak (%47,5) eta industria kimikoa (%43,3). Zerbitzuen sektorean establezimenduen %17,7 berritzaileak izan ziren, eta besteen gainetik gelditu ziren hezkuntza (%34,3) eta enpresei eskaintzen zaizkien zerbitzuak (%30,8). Azkenik, eraikuntzak %8,0ko ehunekoa lortu zuen.

Establezimenduen tamaina kontuan hartuta, 10 langile edo gehiago dituzten enpresetan industriak %36,0ko ehunekoa izan zuen, zerbitzuek %34,2koa eta eraikuntzak %9,6koa.

Enpresek, 2004. urtean zehar, 2.010 milioi euroko gastua egin zuten teknologia sustatzeko jardueretan (aurreko urtean 1.836 milioi euroko gastua izan zuten, beraz, %9,5eko igoera eman da). Beste era batera esanda, 2004ko gastua BPGaren %3,8 izan zen. Zenbateko hori berrikuntzako jarduera nagusien artean banatuz gero ondoko datuak ateratzen dira: makinak eta ekipoa erosteko %39,6, barruko I+Grako %38,3 eta gainerako jardueretarako %22,1.

1. grafikoa: 2004. urteko berrikuntzarako gastuaren banaketa, jardueren arabera. (%)



Iturria: Eustat

Enpresa berritzaileen %29,8ak finantzaketa publikoa jaso du. Ehuneko hori %42,6raino igotzen da 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan

Finantzaketa publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileen artean, laguntzaren jatorria aintzat hartuta, Eusko Jaurlaritzak emandako laguntzak dira nagusi %24,0arekin. Ehuneko hori gutxituz joango da beste administrazio batzuen laguntzei dagokienez. 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan ere Eusko Jaurlaritza da laguntza gehien ematen dituen, mota horretako enpresen %33,4ak horren laguntzak jasotzen baititu.

2. taula: Finantzaketa publikoa jasotzen duten enpresa berritzaileak, jatorriaren arabera. 2002-2004. (%)

	Guztira	10 langile edo gehiago
Finantzaketa publikoa jasotzen dute	29,8	42,6
Tokiko administrazioak	3,1	5,6
Foru aldundiak	11,1	11,9
Eusko Jaurlaritza	24,0	33,4
Administrazio zentrala	5,6	11,8
Europar Batasuna	3,4	5,3

Iturria: Eustat

2002-2004 aldian produktu-berrikuntza negozio kopuruaren %21,9koa izan zen

Enpresetan produktu berritzaileek batez beste duten eragin ekonomikoa negozio kopuru osoaren %21,9koa izan zen; aldatu gabeko produktuak edo pixka bat aldatutako produktuak %78,1ekoak izan ziren. Produktu-berrikuntzak enpresarako ez ezik merkaturako ere badira, horien batez besteko eragin ekonomikoa %14,4koa da.

10 langile edo gehiago dituzten enpresetan ehuneko horiek aldatu egiten dira; orain, produktu berriek edo nabarmen hobetuek negozio kopuruan duten eragina %24,9koa da. Produktua merkaturako ere berria bada, batez besteko eragin ekonomikoa %9,3koa izango da.

Lankidetzari dagokionez, berrikuntzak egin dituzten establezimenduen %3,6 lankidetzak-akordioaren bat sinatu zuten berrikuntza edo I+G jardueretan. Akordio horietan solaskideren bat egon da, hala nola: zentro teknologikoak (%78,9), unibertsitateak eta beste erakunde batzuk (%57,7) eta ekipoen hornitzaileak (%56,0).

Tamainari begira, berrikuntzak egin dituzten 10 langile edo gehiagoko establezimenduen artean %15,7ak finantzaketa-akordioaren bat sinatu zuen jarraian zehazten direnekin: zentro teknologikoak (%68,2), enpresako beste establezimendu batzuk (%39,2) eta unibertsitateak eta beste erakunde batzuk (%37,8).

Enpresen erdiak uste du faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela

Bestalde, enpresen erdien (hain zuen %51,7aren) ustez faktore jakin batzuek teknologia-berrikuntzari traba egiten diote. Faktore horien artean, enpresek hauek nabarmentzen dituzte: berrikuntzaren kostuak gehiegizkoak izatea eta arrisku ekonomikoak gehiegizkoak izatea. 10 langile edo gehiago dituzten enpresen artean ehuneko hori %64,7ra heltzen da.

3. taula: Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak. 2002-2004. (%)

	Guztira	10 langile edo gehiago
Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude	51,7	64,7
Faktore ekonomikoak:	47,8	55,0
.- Gehiegizko arrisku ekonomikoak	34,4	39,7
.- Berrikuntzako kostu handiak	43,3	49,4
.- Finantzaketa-iturririk ez	32,3	36,4
Barruko faktoreak:	30,5	45,4
.- Erakundearen zorrotasunak	12,6	22,4
.- Langile gaiturik ez	17,2	26,2
.- Teknologiari buruzko informaziorik ez	19,1	24,1
.- Merkatuei buruzko informaziorik ez	20,1	22,8
Beste faktore batzuk:	25,9	36,0
.- Arauek malgutasun urria dute	18,7	24,2
.- Bezeroek sentikortasunik ez	19,6	25,7

Iturria: Eustat

Azkenik, 2002-2004 aldian enpresa berritzaileen %20,7ak euren asmakuntzak edo berrikuntzak babesteko asmoz patenteak edo beste babes-metodo batzuk erabili zituzten. Horrela, aldi horretan, enpresen %2,7ak patenteren bat eskatu zuen bere establezimenduan garatutako asmakuntzak edo berrikuntzak babeste aldera eta %3,4ak patenteren bat zuen indarrean 2004. urtearen amaieran. Aldi berean, enpresa berritzaileen %19,9ak beste babes-metodo batzuk erabili zituen. Azken hauen artean nabarmentzekoak dira fabrika-markak, egile-eskubideak, etab.

Ehuneko hauek gehitu egiten dira, alabaina, 10 langile edo gehiagoko enpresa berritzaileak bakarrik kontuan hartzen badira. Zehazki, enpresa berritzaileen %37,5ak patenteren bat edo beste babes-metodoren bat erabili zuen aldi horretan; %7,4ak patenteren bat eskatu zuen 2002-2004 aldian eta %12,4ak patenteren bat zuen indarrean 2004. urte amaieran. Era berean, enpresa horien %32,7ak beste babes-metodo batzuk erabiltzen zituen.

Ohar metodologikoa: EUSTATEk egindako Teknologia-Berrikuntzaren Inkesta edozein tamainako eta jardueraren edozein sektoretako (lehenengo sektorea izan ezik) EAEko enpresei, herri administrazioei eta etxeko zerbitzuei zuzentzen zaie. Inkestaren helburua, enpresek teknologia-berrikuntzarako gauzatzen dituzten jardueri buruzko informazioa ematea da. Inkestak, gainera, EAEko 3.400 establezimenduko eredu-lagin bat hartzen du oinarri gisa.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01011 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada

Tel:+34-945-01 75 07 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es